



EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.- Deialdiaren xedea:

Aramaioko Udalak euskara sustatzeko diru-laguntzak emango ditu honako bi kapitulotan banatuta:

- Euskara ikastaroak egiteagatik edota UEUko Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeagatik.
- Kanpoko zein barruko hizkuntza paisaia euskaraz sortzeagatik. Hala nola: herriko edozein establezimenduetan kanpoko errotulua edota barruko hizkuntza paisaia euskaraz soilik jartzeagatik; herriko erakunde edo taldearen webgunea euskaraz bakarrik sortzeagatik; eta abar.

BIGARRENA.- Deialdi honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru kopurua 1.800 eurokoa da eta finantzatuko da 03.335.481.008 aurrekontuko kontu sailaren kontura.

Aipatutako diru kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

HIRUGARRENA.- Diru-laguntzen izaera:

Diru-laguntza zuzenean emango da horretarako dagoen araubidearen arabera eta ebaluazio bakoitzuaren sistema bidez.

LAUGARRENA.- Diru-laguntzen ordainketa:

Alkateak, euskara teknikariak eginiko proposamena ontzat hartu eta ebatzi eta gero, diru-laguntzaren ehuneko ehuna ordainduko da.

BOSGARRENA.- Dokumentazio orokorra:

Diru-laguntza hauek lortzeko interesa duenak honako dokumentazio orokorra aurkeztu beharko du:

- Eskatzailearen NAREN fotokopia.
- Kontu korrante zenbakia eta titularraren izena eta abizenak.
- Zinpeko aitorpena adieraziz ez dela 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren, IV Tituluan jasotako arau-hauste batengatik zigortua izan.
- Datuak kontsultatu- egiaztatzearen kontrakotasuna (I.eranskina).

Diru-laguntza hauek jasotzeko eskaera egiteak dakar oinarri hauetan ezarritakoa espresuki zein formalki onartzea.

Ezin izango dituzte diru-laguntza hauek eskuratu diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorra izan dutenek.

Pertsona eskatzaileei ohartaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla, indarrean dagoen datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin bat.

Aurkeztutako eskabideek adierazi diren baldintzak betetzen ez badituzte, interesatuei ohartaraziko zaie hutsuneak hamar egunetako epean zuzendu ditzaten, eta honela egiten ez badute, eskaera artxibatu egingo da, ezetza emandakotzat joko delarik.

SEIGARRENA.- Eskaera egiteko modua:

6.1. Eskaerak Aramaioko Udalak aterako duen eredu normalizatuaren arabera (II.eranskina) aurkeztuko dira, behar bezala beteta, kasu bakoitzean zehazten den dokumentazioarekin batera.



6.2. Eskabideak Aramaioko Udalaren bulegoetan aurkeztuko dira, bulego ordutegian (9:00etatik 14:00etara). Honek ez du eragozten 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena 16.4. artikuluan ezarritakoa bete behar izatea.

ZAZPIGARRENA.- Interpretazio eskumena:

Oinarri hauek nola ulertu behar diren argi ez badago, Aramaioko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak ebatziko du zalantza.

ZORTZIGARRENA.- Organo eskudunak:

8.1. Eskaeren balorazioa eta laguntzen proposamena euskara teknikariak landuko du. Alkateak, egindako laguntzen proposamena ontzat hartu eta gero, diru-laguntzaren diktamena egin eta ehuneko ehuna ordainduko da.

8.2. Deialdi honi eta deialdi honetatik sortutako administrazio-egintza guztiei aurka egingo ahal izango zaie, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako egoera eta eratan.

OINARRI ZEHATZAK

1. KAPITULUA. EUSKARA IKASTAROAK

LEHENENGOA.- Onuradunak:

- Aramaion erroldatuta egonik, 2021-22 ikasturtean euskal-tegi homologatua euskara ikastaroak (ikastaro arrunta zein barnetegi izaerakoa) egin dituzten edota UEUko ikastaroetan parte hartu duten pertsona fisikoak.

BIGARRENA.- Egitarau subentzisionagarriak:

- 2021-22 ikasturtean zehar euskara ikasteko egin diren ikastaroak lagunduko dira.
 - 2022an, UEU, Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeagatik laguntza eskainiko da.

HIRUGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea 2022ko azaroaren 30ean amaituko da.

LAUGARRENA.- Diru-laguntzen zenbatekoa:

Diru-laguntza hauek emateko udal aurrekontuaren zenbateko hau erabiliko da: 1.000 euro 03.335.481.008 aurrekontuko kontu sailaren kontura.

Aurrekontuaren kontura banatuko dira diru-laguntzak eta honako hau izango da irizpidea:

- Egin den ikastaroaren matrikula osoaren ehuneko 80 lagunduko da diruz, gehienez ere, baldin eta ikasturtea/ikastaroan asistentzia ehuneko 80 edo gehiago dela ziurtatzen badu eskatzaileak. Edozein modutan, jaso daitekeen gehienezko diru-laguntzak ezingo du gainditu matrikularen zenbatekoa.

Edozein kasutan, diru-laguntzak, aurkeztutako eskaeren arabera kalkulatu dira eta oinarri bezala hartuko dira matrikula agiriak edota bestelako agiriak. Balorazio hori, euskara teknikariak egingo du batzordeko zinegotziarekin batera.

Behin eskaera bakoitzaren balorazioa eginda, proposamena Alkateari luzatuko zaio.



BOSGARRENA.- Dokumentazio zehatza:

Diru-laguntza hauek lortzeko interesa duenak honako dokumentazio zehatza aurkeztu beharko du:

- Ikastaroen kasuan, egin den ikasketen matrikularen kopia eta ordainagiria. Eta presentzia eta asistentziaren ziurtagiria.

2. KAPITULUA. KANPOKO ZEIN BARRUKO HIZKUNTZA PAISAIA EUSKARAZ SORTZEKO

LEHENA.- Onuradunak:

- Aramaion kokatzen diren establezimendu, erakunde eta elkarteak, baldin eta kanpoko zein barruko hizkuntza paisaia euskaraz sortzeko xedea betetzen badute.

BIGARRENA.- Egitarau subentzionagarriak:

- 2022an errotulazioa edota hizkuntza paisaia euskaratzeko laguntzak eskainiko dira.
- 2022an webguneak euskaraz bakarrik sortzeko laguntzak eskainiko dira.
- Beste batzuk: euskara lehenetsi eta sustatzeko beste laguntza batzuk eskaini ahal izango dira, bidezkoak badira eta aipatutako kontu sailean horretarako aukerarik badago.

HIRUGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea 2022ko azaroaren 30ean amaituko da.

LAUGARRENA.- Diru-laguntzen zenbatekoa:

Diru-laguntza hauek emateko udal aurrekontuaren zenbateko hau erabiliko da: 800 euro 03.335.481.008 aurrekontuko kontu sailaren kontura.

Aurrekontuaren kontura banatuko dira diru-laguntzak eta honako hau izango da irizpidea:

- Errotuluak eta hizkuntza paisaia: egin den gastuaren % 60ko diru-laguntzak emango dira errotulu berriak euskaraz bakarrik jartzeko; gehienez ere 300 euro. Errotuluan izen-abizenak bakarrik agertzen badira, ez da emango inolako diru-laguntzarik.

- Webgunea: egin den gastuaren % 60ko diru-laguntzak emango zaizkie webguneak euskaraz soilik sortzen dituzten establezimendu, erakunde eta elkarteei. Gehienez ere 300 euro.

- Beste batzuk: aipatutako hauez gain, beste era bateko eskaeraren bat jasotzen bada, aztertuko da eta, kasu horretan, euskara teknikariak eta zinegotziak erabakiko dute nola jokatu.

Edozein kasutan, diru-laguntzak, aurkeztutako eskaeren arabera kalkulatu dira eta oinarri bezala hartuko dira fakturak edota ordain agiriak. Balorazio hori, euskara teknikariak egingo du batzordearen zinegotziarekin batera.

Behin eskaera bakoitzaren balorazioa eginda, proposamena Alkateari luzatuko zaio.

BOSGARRENA.- Dokumentazio zehatza:

Diru-laguntza hauek lortzeko interesa duenak honako dokumentazio zehatza aurkeztu beharko du:

- Diruz lagundutako errotulu edo hizkuntza paisaiaren argazki bat. Webguneetan bera ikusteko argibideak.
- Kasu guztietan, eginiko lanaren fakturak edota ordain agiriak ere aurkeztu beharko dira.



I. ERANSKINA / ANEXO I

**DATUAK KONTSULTATU- EGIAZTATZEAREN KONTRAKOTASUNA
VERIFICACIÓN DE DATOS- OPOSICIÓN A CONSULTA**

Aramaioko Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioak bere esku dituen datuetan, zuk berariaz kontrakorik esan ezean (kasu horretan dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu).

El Ayuntamiento de Aramaio, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos que obren en poder de la Administración, salvo que usted se oponga expresamente (en cuyo caso deberá aportar la documentación).

Egiaztapen horren aurka bazaude, **markatu X** batez

Si usted se opone a dicha verificación **marque con una X**

DATUAK EDO DOKUMENTUAK	UKO EGITEN DIOT ME OPONGO	DATOS O DOCUMENTO
------------------------	---------------------------	-------------------

Ogasunarekin ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria (AFA)

Certificado de hallarse al corriente depagos con Hacienda (DFA)

Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneandaudela egiaztatzen duen ziurtagiria

Certificado de estar al corriente de pagos con la Seguridad Social

KONTRAKOTASUNAREN JUSTIFIKAZIOA	JUSTIFICACIÓN A LA OPOSICIÓN
Kontrakotasunaren kasuan, beharrezkoa da justifikatzea aurka egotearen arrazoiak <i>(3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua eta 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. artikulua)</i> .	En caso de oposición, es necesario que justifique las razones de su oposición <i>(art.18 dela Ley orgánica 3/2018 art. 21 del 3/2018 Reglamento (UE) 2016/)</i> .

Elkartea edo entitatea/
Asociación o entidad:

SINADURA ETA ZIGILUA
FIRMA Y SELLO

Ordez kariaren izen-abizenak/
Nombre y apellidos del/a representante:

Data/fecha:.....

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta gelditzen da interes publikoaren izenean edo Aramaio Udalarri emandako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzearekin, jarraibide harturik 6.1.e artikuluan aurreikusten duena 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erreglamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, eta legeria aplikagarria.

El tratamiento de los datos de carácter personal queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al ayuntamiento de Aramaio, en los términos previstos en el artículo 6.1.e del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 y legislación aplicable.



**II. Eranskina/ Anexo II
UDAL DIRULAGUNTZA / SUBVENCIONES MUNICIPALES
ESKAERA – SOLICITUD**

ESKAERA AURKEZTU DUENAREN DATUAK/ DATOS DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD:

Izen-abizenak	NAN zenbakia
Helbidea	Herria
Lurralde historikoa / probintzia	Posta kodea
Helbide elektronikoa	Telefonoa

Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa dudala eta ari naizela:

neure izenean

honakoaren ordezkari legez (ordezkaritza kasuan, bete ondorengo taula):

Izen-abizenak / Sozietate izena	NAN / IFK zenbakia
Helbidea	Herria
Lurralde historikoa / probintzia	Posta kodea

Badagokio, dirulaguntza ingresatzeko kontu korrante zenbakia/ En caso de concesión de subvención, ingresar en este número de cuenta:

(IBAN + 20 digito)

Eskatzaileak jarduera berarentzat beste dirulaguntza bat eskatu edo jaso du

La entidad ha solicitado o recibido otra(s) ayudas para la misma solicitud BAI/ Sí EZ/ No

Eskatu den erakunde publiko edo pribatuaren izena/ Nombre de la entidad pública o privada en la que se solicitó. -

Eskatutako edo jasotako kopurua/ Cuantía solicitada o recibida. -



IRAKURRI dut atzean dagoen datuen babeserako oinarriko informazioa eta ONARTZEN dut bertan adierazten zaidana.
HE LEIDO la información básica sobre protección de datos descrita a continuación y manifiesto mi CONFORMIDAD con lo solicitado.

Fecha/ data.-

Firma/ Sinadura.-

Datu babesari buruzko oinarriko informazioa		Información básica sobre Protección de Datos	
Arduraduna	Aramaioko Udala	Responsable	Aramaioko Udala
Helburua	Interesdunen eskaera kudeatzea.	Finalidad	Gestión de las solicitudes de los/las interesadas/os.
Legitimazioa	Interesdunaren onarpena	Legitimación	Consentimiento del/de la interesad@
Hartzaileak	Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legeak agindu ezearn	Destinatarios	No se cederán datos a terceros, salvo obligación legal
Eskubideak	Datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko; bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen denez	Derechos	Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional
Informazio osagarria	Datu babesari buruzko informazio osagarria eta zehatza eskura dezakezu gure web orrian: http://www.aramaio.eus	Información adicional	Puede consultar más información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra página web: http://www.aramaio.eus
Araudia:	Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 Erregelamendua (EB), apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa).	Referencia legal	Reglamento general de protección de datos (Reglamento (UE) 2016/679, del 27 de abril, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos).